

PuLunPe

150. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Enrike Etxebertz, **Olagueko** banatzailea

Olaguen dauden euskaldun gutxietako bat da Enrike. Txikitatik bizi izan da bertan, eta lan ugartan aritu da. Herriko 160 biztanle ingururi Pulunperen banaketa egiten die hilabetero.

Zertan aritzen zara lanean?

Kaikurentzat behitegietan esnea jasotzen ibiltzen naiz kamioiarekin. Anue, Atetz, Lantz, Malerreka, Aurtitz, Mugairi, Nabarte eta Arraiotzen jasotzen dut esnea.

Zenbat daude Anuen?

Bi, Aritzu eta Olaguen. Lehen askoz gehiago zeuden, baina azkenaldian asko jaitsi da. Inoiz gertatu ez den zerbait ari da gertatzen, abeltzain batzuei ez zaie esnea jasotzen, produkzio kostua saltze kostua baino handiagoa delako. Behitegiak handitu behar izan dira, eta txiki mantendu direnak desagertu egin dira. Larri dago sektorea.

Beti aritu zara lan honetan?

Ez, elektrizitatea ikasi nuen eta lanean ere hasi nintzen, Danonera joan nintzen ondoren, eraikuntzara pasa nintzen gero, beranduago Iruñean banatzaile ere ibili nintzen, Iraizozko Tufferretan gero, eta azkenik anaiarekin esnea jasotzen hasi nintzen. Orain arte.

Gaztetan gutxi joaten zineten Iruñera?

Beno, han ikasi nuen elektrizitatea, baina gehiegi ez nuen ezagutu. Herrian egoten ginen bereziki, eta Iruñera joatean galdu egiten ginen. Parranda ere hemengo herrietan egiten genuen, eta noizean behin Iruñea edo Burlatara joaten ginen.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Anuen?

Baxu xamar, herriren batean gehiago mantentzen da, Aritzun agian, baina gainontzekotan kezkarria da egoera. Gaztetxo guztiek ere ez dute euskaraz ikasten, orduan zaila da honela euskara indartzea. Zaharrek ere oso gutxi egiten dute euskaraz

Aldizkaria orduan ez da asko irakurriko ezta?

Argazkiak behintzat bai. Eta beno, norbaitek interes berezia badu artikuluren batean, galdetu egiten du zertaz ari den jakiteko. Beraz interesa behintzat sortzen du.



PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA...

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

AZALA: Patxi Ocoz

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO MARTXOAREN 4AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Zuria

Zuri osoa, zuri purua,

*Helburua bilatzen duen zuria,
bidea ez aurkitzeagatik
arraro sentitzen den zuria,*

*Goizaren zuritasuna,
plazerra ematen duen zuria,*

*Neguko argia,
elur epela,
azukre likidoa, ezti zuria*

*Guztiaren oinarri den
izar hauts zuria,*

*Barruan ez badarama,
mina sentitzen duen
amodio zuria*

Luis Alberto Lecunaren olerkia

MARTXOAK 8 MARTZO
EMAKUMEEN NAZIOARTERKO EGUNA
Feminismoa ez da metakomaren kontrakoa, ezherdintasunaren antipodoa ez da hainik. Orain bada beharrezkoa!

18:30 LARRAINTZAR 4
DOMINIQUE LIBURUAJAREN AURKEZPENA. Elkarretaratzea eta tertulia egilearekin, Txaro Begué-rekin. Larraintzarreko liburutegian. Liburuaren ale bat eskuratu dezakezue liburutegian, izan ere, irakurle taldean ere liburua landuko da.
"Historia honen emakumeek izilik hitz egiten dute, xuxurlatzen, sekretu bat kontatzen ari balira bezala. Etxean niri baino lehenago bizi ziren emakumeek zer pentsatzen, zer sentitzen eta zerekin amets egiten zuten jakin nahi dut."

19:00 ZIAURRITZ 11
DOKUMENTALA
TAMBIÉN SOMOS MUJERES.
Ainara Pagola, zuzendaria eta argitaletzailea, aurkeztuta. Plena Inclusion Nafarroako elkarteak emakumeak gerturatu ditu. Elkartearen eta Sozialeko Erreportajearen Saria lortu zuen Espainian. Zintan bost emakumeen biziak aurkeztu dira. Baita ere modu batez edo bestez berriz berriz aurkeztu dira. Nahi eta desadostasun sozial baten egoera bizi, modu bakor baten jantzi dute atzizera.

19:00 LARRAINTZAR 18
DESMEDIDAS ESPEKTAKULUA.
Compañía Emperdedoras taldea: Aurora Moneo / Esteranía de Paz. Ederra egoneko izarrak. Ikusi behar dira. EDERTASUN EZINEZKOAREN inguruko eta maitasun emonentearen ereduaren inguruko hausnartzen duen antzerki ikuskizuna.

MARTXOAK 19 LIZASOKO ELKARTEAN

GAZTE EGUNA
ultzama

14:00 bazkaria (15€)
bazkalostekoa: aritz eta amaia + the phulmas
19:00 gazte olimpiadak
afaltzeko bokatak guraso elkartearen eskutik
22:00 kontzertuak

THE GUILTY BRIGADE
THE SOUND SYSTEM
Zartako K
BASQUE RUDE STYLE

Bazkarirako txartelak
Larraintzarko estatuan eta
Deskargen salgai

Kultur Ekimenak

MARTXOA - MARZO

Erakusketak - Exposiciones

Martxoak 9-11 martxo Larraintzar
Eskualdeko Emakumeen Nazioarteko Egumen bilakaera. Irudien artean pasetzen eta orotzen.

Martxoak 14 martxo-apirilaren 22 abril Larraintzar
Ahalduztze erretratuak. Gazako emakumeen egoera.

Larraintzarko Benta
Gizarte Etxea

Odiela Lantz Aiez Ultzama

"Gazte kulturak antolatzen gaituzte? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak... ZATZE ONAVAZO BATZORKEA!
Hilabete lehenago AITZARTEETAN bitan gara arrotzaldia 17:00etan gaste etxean. **Anima zaiten!**
Email bidez informazioa jaso: kulturwug@gmail.com"

RUGBY AREN GAUPASA 2016

MAIATZAK 14
MAYO
LARRAINTZAR (ULTZAMA)

BRT

LABUR BIRA
FILM LABURREN ZIRKUITUA
Gazteak, Zuzendakariak, Zuzendakariak

Larraintzarko Benta
martxoaren 16a 19:00etan

EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITUAK
13. EDIZIOA BETEKO DU AURTEN
ETA 27 HERRI BISITATUKO DITU, TARTEAN GEUREA:

EGUNA: MARTXOAREN 16A
ORDUA: 19:00
TOKIA: LARRAINTZARKO BENTA

XIII. LABURBIRA OSOTZEN DUTEN 8 LANAK:
ZEA BINGO. 2015 (7'). ANE URKIOLA
ERREPLIKA. 2015 (14'30"). IÑIGO GAITON GON-
ZALEZ DE TXABARRI

JORRAI. 2015 (3'). UDA FILMS.
FISHURA. 2015 (6'45"). YAGO MATEO.
BERE BIZITZETAKO BAT. 2014 (8'). AITOR GA-
METXO

BRUNILDA. 2015 (12'50"). ERIZ ALBERDI.
HARTZ TXIKI. 2015 (16'30"). "THE ARLOTES",
URAITZ SOUBIES.

SEMEAK. 2015 (7'25"). IKER AZKOITIA.

BIGARREN ARGAZKI LEHIAKETA

Pulunpek argazki lehiaketa bat antolatu du aurtengo ekitaldirako.
Lehiakideak: Hemen bizi den edonork har lezake parte baina gutxienez urtebete behar du hemen bizi dela.

Erroldaren bidez ziurtatuko da baldintza hau.
Argazkiak aurkezteko epea: maiatzaren 22a.

Lehiakide bakoitzak bi argazki bakarrik aurkez ditzake.

Sariak:
Lehen saria:.....300 euro
Bigarrena saria:.....200 euro
Hirugarren saria:....100 euro

Lehiaketako arauak nahi dituenak eska ditzake helbide honetara,
eta emailaz igorriko dizkiogu: ametzake@gmail.com

Ultzama aldean klima aldaketa?

Berriki egin dute munduko agintari garrantzitsuenek krisi klimatikoaren inguruko goi bilera Parisen. Hitz franko eta konpromiso gutxi, eta praktikoki ondorio gutxi espero dira. Urrun geratzen zaigu askotan gai hau, baina Ultzamako Garrapo taldeak gurean gertatzen ari diren ondorioak ikertu ditu.



AURTENGO NEGUA, HASTERAKO IA AMAITUA

Kosta zaio neguari iristea. Abendua udako beste hilabete bat zela ematen zuen, lehorra eta beroa. Hasi ziren loreak ateratzen, animaliei kosta zitzaizen hibernatzen hastea, lehen elurak botatzeko luze itxaron behar zian genuen, urtegieta ura agortzen ari zen...

Iritsi da zorionez negua, baita hotza eta elurra. Besteetan baino gogo gehiago hartu dugu elurra, izan ere "sasoian sasoikoa egin behar du" esaldia ohi baino gehiago entzun dugu, eta, behinik behin, hasi da negu sasoiko giroa.

2015, URTERIK BEROENA

Duela 136 urte hasi ziren Lurraren tenperaturari buruzko datuak biltzen, eta, ordutik gaur arteko datuen arabera, iazkoa izan zen urterik beroena. XX. mendeko datuei begiratuta, Lurrak, batez beste, 13,9 gradu zentigraduko tenperatura izan du; 2015ean, ordea, batez besteko hori ia gradu bat handitu zen (zehazki, 0,9 gradu).

Oso urte lehorra izan zen ere iazkoa. Mundu osoan alarmak piztu dira, baina maila lokalean, Ultzama aldean ere, Garrapok argitaratutako datuak kezkagarriak dira: 1000 litro euri gutxiago bota zuen 2015ean, normalean 142 euri egun inguru izaten ditugu, eta iaz askoz gutxiago zian ziren. Eta tenperatura 1,4 gradu igo zen.

ZERTAN NABARITU DA GUREAN?


1. ORGIKO HARIZTIA LEHOR

Orgiko basoaren ezaugarriak nabarmenena bere hezetasuna da, putzu asko izaten ditu, eta horrek espezieen bioaniztasunari eragiten dio. Aurten goa hain lehorra izanik, putzuak desagertu egin dira, eta eragin kaltegarria dauka espezie zehatz batendako: igel jauzkaria.



Bere habitata galdu du, eta beraz Orgitik desagertzeko arriskuan dago. Hariztiko putzuetan jartzen dituzte arrautzak, baina 2015eko urte amaieran ez zegoen putzurik. Garrapo taldeko kideek ziurtatu dute putzuak itzuli direla urte hasiera honetan, eta igelek arrautzak jarri dituztela.

Bere garrantzia dauka espezie honek, oso zorrotzak baitira beren habitatarekin, kalitate oneko giroa behar dute, eta, beraz, Orgin badaude, airearen eta uraren kalitatea ona den seinale.




2. LOREAK NEGUAN ATERA DIRA

Argi dago loreak udaberrian ateratzen direla normalean, baina neguari hainbeste kosta zaio iristea, loreak lehenago ateratzen dira. Pinpirrinpiñiek, esaterako, negu hasieran hasi ziren ateratzen. Pagadietan ikusteko aukera izan genuen urtarrila osoan, beste hainbat lorerekin batera. Orain, ordea, eten egingo da prozesua hotzaren eraginez.

3. MARZUOLUS ZIZA

Martxoko ziza, elurretako ziza, edo bere latinezko izenez Hygroforus Marzuolus urtarrilean hasi ziren hartzen Garrapoko mikologoak. Urtero egiten dute ziza honen jasotze kanpaina eta bisita gidatuak, eta aurten aurrekoetan baino lehenago ateratzen hasi da. Bere izenak dioen bezala, martxoan ateratzen dira normalean, lehen elurren ondoren, baina aurten lehen elurtea baino lehen ateratzen ziren.




4. KATTAGORRIAK ETA MUXARRAK LODI

Urte beroak eta negu berantiarrak janari ugari gorde diete animaliatxo hauei. Jateko nahi adina izan dute, eta ohi baino beranduago sartu dira beren gordeleketan. Jan eta jan, lodi-lodi jarri dira, eta muxarrak ugari ibili dira gurean. Bitxia izan da, aldi berean, hain kattagorri lodiak ikustea.

5. PROZESIONARIA UGARI

Ikaragarria izan da pinudietan ikusi ahal izan dugun prozesionaria kabi kopurua. Borobil zuriz beteak zeuden pinuak, besteetan baino gehiago eta besteetan baino lehenago. Kezka ere agertu

dute zakur-jabe zenbaitek, arriskutsu izan baitaiteke zakurrentzat prozesionariak jaten badituzte.



6. PANTICOSAN, HARTZA NORAEZEAN

Hartzak ere aztoratuak ibili dira. Aspaldi ez zen hartzik hain gertu ikusten, eta urtarrila honetan hartz bat ikusi ahal izan genuen Aragoiko Pirinioetan, Panticosako bainuetxearen ondoan elur gainean. Kosta zaie hartzei ere beren gordeleketara joatea negua pasatzera, baina tenperatura hain zen beroa, ez baitzuten negua iritsi zela sentitu.

MUNDU MAILAKO BESTE HAINBAT GERTAERA:

Glaziarrek desagertzen ari direla eta itsasoaren ur maila igotzen ari dela era abstraktuan esaten da frankotan. Hala ere, 2015ean, Alpeetako glaziarrek inoizko egoerarik kaxkarrenean egon dira. Inoiz gertatu ez den zerbait egin zuten, Mont Blanc eta Cervino mendietako hego aurpegietako bideak itxi. Debekatu egin zuten bide horietatik igotzea, eta biderik errazena dira normalean, jakina.

Arrazoia glaziarren egoera izan zen. Inoizko maila baxuenean zeuden, eta arrakala eta zulo ugari zituzten, oso arriskutsu beraz gainetik ibiltzea. Gaez ez zuen behar besteko hotzik egiten, egunez beroa ikaragarria egiten zuen, eta arrakalak minutu gutxitan irekitzen ziren glaziarretan.

HONEN AURREAN, ZERBAIT EGITERIK?

Parisko Goi Bilerak ondorio praktikoki gutxi izanzen dituelakoan, praktiken aldaketa maila lokalean izan behar dela gero eta argiago dago. Horretarako, Garrapo taldeak hartu beharko genituzkeen neurri batzuk zerrendatu ditu:

- Garraio publikoa edo isurketa kutsagarri gutxiago egiten duen garraioa erabili.
- Kontsumoa murriztu, berrerabili eta birziklatu
- Energia aurreztu eta energia berriztagarriak erabili
- Zuhaitzak landatu

Martxoak 8 egunero gurean ere



Egutegiaren orrialdeak aurrera doazen heinean, beste urte batez martxoaren 8arekin topo egin dugu. Behin eta berriz Emakumeen Nazioarteko eguna ospatzen badugu ere, gure gizartean berdintasun arazo handiak izaten jarraitzen dugu: indarkeria matxista, soldatetan desberdintasuna, kontziliazio kontzeptuan desberdintasuna, zaintzan... Askok gelditzen da egiteko, horregatik gurean aurten hamaika ekimen antolatu dira. Ikus ditzagun gainetik bada ere.

Kronologikoki egingo dugu gainbegiratua. Basaburuko emakumeak izan ziren lehenengoak ekimenak antolatzen. Indarkeria sexistaren aurkako protokoloaren aurkezpena egin zen otsailaren 26an, Kultur Etxean, Aizarotzen.

Amaia Zufia, Bilgune Feministako kideak Basaburuko kide batekin batera aurkeztu zuten. Artikulua- ren irudia egun horretakoa da.

Frontenis eta pala txapelketak Latasan



Otsailaren 13an hasi ziren txapelketak Lata- sako pilotalekuan. Emakumeak frontenis txapelketan ari dira, eta gizonezkoak pala- zkoan. Bost jardunaldi izanen dira guztira, eta mar- txoaren 19an bi txapelketetako finalak jokatu- ko dituzte.

Frontenis txapelketan sei bikote jokatzen ari dira: Bidaurretako (Etxauribar) bi bikote, Jauntsaras- ko Amaia eta Nerea, Gaskueko Oihane eta Judith,

Martxoaren 4an, ostiralean, hainbat ekimen antolatu ziren. Larraintzarren Txaro Begué idazlearen “Dom- inique” liburua aurkeztu zen, idazlea bertan zegoela. Basaburuan, aldiz, poteo aldarrikatzailea egin zuten Jauntsarastik hasita eta emakumeen afari batekin Apeztegi berrin bukatu zena. Menu berezia jan zu- ten: barazki fruitu lehor entsalada, pate, bakailao eta pataten nahaskia, alberjina gainerreak eta ahate konfita... A ze afari goxoa! Afalostea Pantxika Lamur artista sakandarraren esku geratu zen. Martxoaren 6an Kurdistanan kokatua dagoen film bat ikusi zen Basaburuan eta umeentzako beste pelikula bat ere eskaini zen.

Urtero bezala, martxoaren 8an manifestaldi jendet- sua antolatzen da Iruñean. Bertan, Nafarroa osoko jendea elkartzen da. Gurera itzulita, martxoaren 11n da hurrengo hitz ordua, interesgarria benetan. Alde batetik “También somos mujeres” dokumenta- la ikusiko dute Ziaurritzen Ainara Pagola zuzendari laguntzaileak aurkeztuta. Ikus-entzunezko lan hone- tan, bost emakume desberdinen bizitza aurkezten da, “modu baikor batean aurrera ateratzen dira nahiz eta desabantailak izan”. Bestetik, Basaburuan jardunaldi mamitsuak antolatu dituzte: “Hau ez da gure bakea. Gatazka politikoaren irakurketa feminista” lemape orokorrean, Miren Zabaletak “Pertsonala politikoa da” hitzaldia eta debateak aurkeztuko ditu. Jule Goi- koetxearen esku, aldiz, “Bakea ez da existitzen. Fe- minismoa bai” hitzaldia. Hurrengo pulunpen honen inguruan idatziko dugu.

Antolatutako ekimenekin bukatzeko, “Desmedidas” antzerkia eskainiko dute 18an Larraintzarren eta Gi- zarte Zerbitzuetatik gogoratzen digute martxoaren 14tik aurrera, Gazako emakumeen erretratuak erakusketa egongo dela ikusgai.

Erasokoko Ainara eta Uxue, eta Igoako Amaia eta Naroa. Pala txapelketan, aldiz, bi maila bereizi dira. Lehenengoan Sakanako hiru bikote daude (Irur- tzun, Lakuntza, eta Etxarri-Aranatz), Barañaingo eta Iruñeko bana, eta zonaldeko bakarra: Gartzaron eta Larraintzarko Legarrak eta Olaskoagak osatu- takoa.

Bigarren mailan denak dira zonaldekoak: Gartza- rongo Ibai eta Riki. Etxaleku eta Erasoko Hodei eta Zapa, eta Latasako bi bikote, Aritz eta Santi alde ba- tetik, eta Alex eta Roberto bestetik.

Finalaren egunean, martxoaren 19an, maila guztie- tako azken partidaz gain, Etxarri-Aranazko neskek pala partidu erakustaldia emanen dute, eta amaie- ran otamena izanen da.

Ultzama aldetik, Kordobako espetxera



Espetxe guztietara martxa antolatu zuen Ezker Abertzaleak otsailaren 20an. 400 preso baino gehiago daude gaur egun Espainia eta Fran- tziako 40 espetxetan banaturik, eta Kordobako espe- txera hiru autobus joan ziren, gure biztanleek betetako bi.

Basaburuko eta Leitza inguruko biztanleek autobus bat bete zuten, haiek esan bezala jende gehiegi zeuden hain autobus kaxkarrerako, baina 8-9 orduko bidaia- ren ostean pozik jaitsi ziren autobusetik espetxeko hormaren aurrean. Beste autobusa Ultzama, Odieta eta Atezko biztanleek bete zuten, Irurtzungoekin bate- ra.

Bertan zain zituzten Andaluziako hainbat solidario: SAT (Sindicato Andaluz de los Trabajadores) sindika- tuko langileak eta Andaluziako EHLko (Euskal He- rriaren Lagunak) kideak. Musika, abestiak, banderak eta oihuak izan ziren espetxe kanpotik barnera, bertan dauden presoek indarra adierazteko.

Balorazio ona egin zuten zonaldeko biztanleek, in- darrez beteta bueltatu baitziren, eta balorazio ona ere solidario andaluziarrek. Argitaratutako testu batean, Ezker Abertzaleak egindako ekimena goraipatu zuten, eta hemendik 900 kilometrora joan ziren biztanleen konpromisoa txalotu.



PULUNPE ALDIZKARIAREN ARGAZKI LEHIAKETA

SARIAK: 300, 200 ETA 100 €!

OINARRIAK www.ametza.eus WEBGUNEAN





Esne Beltza eta “Dumping” praktikak



Pentsatu al duzu musika taldeen izenak halako musika geroz eta arraroagoak kontzertu bati baitira... Lasai, kontua buruz hitz egin behar ez doa horri buruz, segudula? Gaur egungo rioa da eta gurean badu

eragina.

Otsailaren bukaeraren UAGN sindikatuak Foruzaingoari eskatu zion Nafarroako mugetan “esne beltza” pasa ez zedin kontrolak areagotzea. Eta zer da esne hori ba? Ilegalki han-hemenka saltzen den esnea, oso prezio baxuetan. Egoera hau Europak esne-kuotak kendu zituenetik areagotu dela pentsa daiteke.

Pello Dorai EHNE sindikatuko abeltzainarekin hitz egin genuen horri buruz: “Batzuetan susmoak ditugu; nik, pertso-

nalki, bukatutako produktuan iruzur gehiago dagoela pentsatzen dut; hauts esnean ere badago arazoa, legalki ezin baita hautsa dena berriro esne bihurtu”. Pellok azpimarratu digu esnearekin egiten den “dumpinga”. Kostu prezioa baino merkeago saltzea da hori. Azken hilabeteetan hitz hau han-hemen entzun da, Txinako altzairuarekin sortu den krisia dela-eta.

Doraik azpimarratu digu kontsumitzaile gisa dugun botereaz, non eta zer aukeratzeko ahal baitugu.

Marzuolus garaia iritsi da

Hygroforus Marzuolus, martxoko ziza edo elurretako ziza. Udazkena pasata, urteko garairik hotzenean ateratzen den ziza da hau. Hartzeko zaila, baina altxor preziatua.

Lehen elurrekin batera ateratzen ohi da, eta hosto tartean ezkutatu. Kattagorriek laguntzen omen dute zizak ikus ditzagun, txapelaren zati bat jaten baitute, eta kolore marroixka izan beharrean, zuria geratzen zaio, eta errazagoa da goitik ikustea.

Garrapo taldeak bisita gidatuak antolatzen ditu urtero, eta arrakasta izugarria duen ekimena izaten da. Guk agian ez dugu behar beste baloratzen, baina euskal probintzietatik, Errioxatik, Kataluniatik bisitariak izaten ditugu garai honetan elurretako zizaren bila.

Eguraldiak errespetatzen gaituen bitartean, Garrapok irteerak antolatu ditu jada, garai honetan zizak biltzeaz gain, amaieran hartutako Marzuolusekin bazkari eder bat egiteko zonaldeko ostatuetan. Parke Mikologikoaren webgunean duzue informazio gehiago irteeren inguruan.

Bestalde, hezeguneen nazioarteko egunarekin bat eginda, Belateko zohikaztegira bisita antolatu zuen Garrapok, baina atzeratu behar izan zuten. Eguraldi ona itzultzean antolatuko dute berriz ere irteeratxo bat hemen ondoan dugun altxor hau sakon ezagutzeko.

Enrike Etxandi, “Zumarro”ren heriotza

Ez da agurra izango hemen idatzai dudana hitzak baino askoz gehio nire bihotzak diona lagun asko bildu gara handia da gure pena plazerra izan da zurekin izandako harremana.

Isildu dira marmarrak mututu ere orroak desagertu zure irria zure gorputza harroa. Aienatu ere egin du zure izateko modua elegancia horixe! Ez ordea diskretua...


Utzi duzun arrastoa betea dago kolorez oroimenean segika oso jarraitzeko errez Ez gaituzu engainatuko berdin da non sartu zara erdal bertsolari hori zurekin egongo gara.

Doinua: Habanera.



Zirrara handia sortu du Enrikeren heriotzak. Gizon ezaguna, umoretsua eta bizinahia. Bizitorea gure zaharrek esanzen lukete. Gazte oraindik, betiko utzi gaitu Iraizozko Maizkorneko (Artxaia) semeak. Hutsune handia utzi du Enrikek Ultzaman. Goian bego! Hona dakartzagu Enrikeren hiletetan, bere adiskide Txetxo Lopez donostiarrak kantatu zituen bertsoak:

Gureak bermatuz eleaniztasunera



Hizkuntzen ikuspegitik oso gizarte konplexuan bizi gara Nafarroan. Populazioaren gehiengo handi bat gaztelaniadun elebakarra da eta gutxiengo bat euskaldun elebiduna, eta testuinguru horretan gure seme-alabak eleaniztun izatea nahi dugu.

Eleaniztunak izanen badira, horretarako modurik eroso eta merkeena derrigorrezko irakaskuntzan ikastea da; baina, ez da bide naturala. Irakaskuntzan hizkuntza ereduen sistema indarrean dagoenez geroztik zerbait ikasi dugu, alegia, hizkuntza batean edo bestean eskolatzea ez duela ziurtatzen hizkuntza horretaz gaitasun osoz jabetuko direnik; izan ere, testuinguru soziolinguistikoak ere baldintzatzen du ikas-prozesua, eta testuinguruaz ari

garela ez gara bakarrik ari etxeaz, lagunarteaz edo ingurumen hurbilaz.

Euskaraz eskolaturiko ikasle guztiek gaztelania ikasten dute nahikotasunez herririk euskaldunenetan ere, gaztelaniaren erresorteak modu eta bide anitzetatik iristen baitzaizkie, etengabe. Ez dago modurik, erresistentziarik, asmorik, ezta beharrik ere gaztelaniatik isolatzeko. Euskaraz eskolaturiko ikasle gehienek gaztelania modu naturalez ikasten dute, eta haien elebitasunaz harrotasunez eta naturaltasunez baliatzen dira. Aukera izanen dute gutxienez bi hizkuntza ofizialak beharrezkoak diren lanpostuak betetzeko, eta erraztasun gehiago hirugarren hizkuntza bat ikasteko.

Euskararekiko erresistentzia ideologikoengatik, euskaraz deuserako balio ez duela pentsatzeagatik edo beste edozein arrazoiagatik beren seme-alabek euskara ez ikasteko erabakia hartzen dutenek gehienetan kexatu egiten dira, gero, administrazioko lanpostuetan legea betetzeko euskara jakitea nahitaezko baldintza eskatzen denean, eta diskriminazioaz mintzo dira. Atzendu omen zaigu gurean, gaztelaniaz gain, euskara ere hizkuntza ofiziala dela, eta estatus horrek administrazioan hainbat eskubide eta betebeharrak ekartzen dituela, baita gizartean ere, jakina.

FELIX ALTZELAI. EUSKARA TEKNIKARIA

Musika eskolako entzunaldiak hasi dira

Martxoaren hasierako astea musikaz blai egon da gure eskualdean eta hurbil ditugun beste bailaretan ere, Aralar musika eskolak urteko lehen entzunaldiak antolatu baititu. Kontzertu hauek Ultzama aldean ez ezik Leitzan eta Lekunberri aldean ere izan dira. Gogora dezagun musika eskola honek zonalde zabal hori hartzen duela.

Kasu honetan “soka” edo “familia” desberdinak kontuan izanda antolatu dira kontzertuak. Martxoko lehenengo astean egunero-egunero izan dira taldekako kontzertuak: otsailaren 29an Leitzan hasi ziren pop-rock estiloa

jorratzen duten taldeak. Asteartean Basaburura hurbildu ziren, Jauntsarasko ganbaran akordeoiariak ikasi dutena erakutsi zieten guraso, lagun eta familiei. Betelun egin ondoren, Larraintzarren antolatu zituzten hurrengo kontzertuak, bikoitza gainera: trikitilariak eskolan eta ondoren perkusio ikasleak Gizarte Etxean. Azkenik, Leitzan eta Lekunberrin gitarra jotzaileak eta haize familiako instrumentu ikasleak aritu ziren.

Javier Irigoien zuzendariarekin hitz egin genuen eta komentatu zigun “oso interesgarriak” direla kontzertu hauek: alde batetik “ikasleak jendearen aurrean jotzera” ohitzen dira eta bestetik guraso eta familiei ilusio handia egiten die txikiak musika egiten ikustea.



Lapurretak **berriro**, oraingoan Iraizotzen



Zonaldeko Foru-zaingoaren buruak grafikoki esan digu: “Azken bolada honetan zuen zonaldean lapur bandaren bat dago”. Askoren eguneroko elkar-rrizketetan lapurreten gaia presente egon da azkeneko hilabeteetan. Gogora dezagun Lantzen eta Jauntsaratsen gau bakar batean lapurtu zutela. Oraingo honetan Iraizotzen sartu ziren lapurrak. Ostatuan eta elkartean. Bietan “modus operandi” berbera

erabili dute, aurreko hila-
labeteko lapurreten ber-
dina: leiho batetik sartu
kristala apurtu gabe eta
dirua lapurtu.

Ultzamako herri han-
dienekeo tabernan gauze-
sartu ziren, jantokiko
leihotik. Kanpoko hesia
kendu ondoren, krista-
la kendu zuten. Diru-
kutxa hartu eta bertatik
50 euro inguru eraman
zituzten. Beste lapurre-
tetan gertatu zen be-
zala, ez zuten beste
ezer gehiago “ukitu”.

Elkartean, aldiz, lapu-
rreta “zikinagoa” izan
zen: kanpoko atearen
bi sarrailak apurtu eta
barrura sartu. Bertan,
dirua gordetzeko ku-
txaren bila joan ziren.
Armairu batean sartuta
zegoen kutxa, horman
sartuta. Kutxa paretatik
atera zuten horma zati
bat eta guzti eta arras-
taka eraman zuten.
Arrastaka diogu, oso pi-
sutsua baita kutxa hori.
Asteburuan ateratako
dirua eraman zuten ku-
txan. “Elkarteak kolpe
handia jaso du, diruaz
gain konponketak or-
daindu behar direlako
eta”, esan digu herriko
lagun batek. Ostatuan
biltegiko sarraila hautsi
zuten, baina hortik ez
zuten ezer eraman...

Istorioa ez da hor buka-

tzen. Diru-kutxa Belate
aldean agertu zen egun
batzuk geroago, atea
kolpeka apurtu bai-
tzuten. Horretaz gain,
ostatuan hartutako
kristala eta erretilua
elkartean agertu ziren.
Abenduan Lantzen auto
bat lapurtu zuten. Le-
hengoan Santanderren
agertu zela esan ziguten
Lantzen.

Foruzaingoko iturriek
aipatu digute zonaldean
lapur banda bat dabilela
eta haien atzetik daude-
la, momentuz emaitza-
rik gabe. Gauzak horre-
la, baliteke Lekunberrin
gertatutako lapurreta
bat talde berekoek egin
izana. Gertaera hau
ezaguna egin da sare
sozialen bidez bideo bat
zabaltu baitzen. Infor-
matzen jarraituko dugu.

Zaldi heziketa naturaleko ikastaroa **Beramendin** apirilean



Antolatzaileen esane-
tan “zaldi heziketa
naturala zaldiak
egoera naturalean duten
jokabideen ikerketan oina-
rritutako heziketa da, eta
ezagupen horiek zaldien
gobernatze, hezitze eta
mantentzean aplikatzen
da”.

Beramendin apirile-
ko 15, 16 eta 17an antolatu
dute ikastaroa. “Konfian-
tza eta errespetuan oina-
rritzen den lan eredua da.
Gure helburuak lortzeko,
zaldiaren lankidetzara bi-
latzen dugu eta irakasteko
garaian ez dugu indarke-
riarik erabiltzen”. Gure es-
kualdean bada jendea zal-
dietan interesa duena, eta
interesgarria iruditu zaigu
Beramendiko gazte hauen
ikuspuntua. Ikastaroa zu-
zenduta dago zaldiekiko
“ikuspuntua sakonago bat

eduki nahi duten jabe, zal-
di zale, langile zein zaldien
mundua beste era batera”
ezagutu nahi duten per-
tsonei. “Zaldiekin dugun
harremana hobetu eta aldi
berean lanaren emaitzak”
hobetzen direla azpima-
rratzen dute.

Ikastaroa Vanesa
Ugartek eskainiko du, zaldi
heziketan eta mindutako
zaldiak bideratzen urte
asko daramatzan profesio-
nala. Bere prestakuntzaren
oinarria Lucy Reesekin
elkarlanean osatu zuen
eta gaur egun estatu osoan
ikastaroak ematen jarrai-
tzen du. Ikastaro honetan,
parte-hartzaileei beren
zaldia ekartzeko aukera es-
kaintzen zaie. Kontaktua:
ikastaroakursos@gmail.
com edota 672 41 65 95 te-
lefonora deitu.

Gripea, beste lekuetan baino “lausoago” gurean



Jende osasuntsua
omen gara edo-
ta txertoak txintxo
jartzen ditugu, kontua da
gutxiago gaixotzen gare-
la. Ez dakigu ongi zerga-
tik, baina gure eskual-
dean gripearen datuak
Nafarroa osoan baino
baxuagoak dira.

Estatu mailara begira
jarrita, Nafarroa izan da
gripe tasa altuena izan
duen lekua, halere Bas-
aburuko medikuak esan
digunez, “beste urteetako
kutsatu kopuru antzekoa
izan dugu”.

Hori bai, gogorara-
zi nahi izan dute pre-
bentzioaren garrantziaz
eta horregatik popula-

zioa animatu nahi dute
honako neurriak har-
tzera: Txertatzeaz gain,
arnasketaren sintomak
dituzten pertsonen
kontaktua saihestu eta
oinarritzko higiene neu-
rriak hartzea (dominis-
tikua eta eztula egitean
sudurra eta ahoa ez-
tali, eskuak maiz garbitu, eta
abar).

Kontaktua saihestea
ezinezkoa denean, infe-
kzioa duen pertsonak eta
haien ingurukoek mas-
kara erabiltzeak kutsa-
tzeko arriskua gutxitzen
du. Arnas infekziozko sin-
tomak dituztenek osasun
etxe eta egoitzetara joa-
tea saihestu behar dute.

Gripea, beste lekuetan baino “lausoago” gurean

Jende osasuntsua omen gara edota txertoak
txintxo jartzen ditugu, kontua da gutxiago
gaixotzen garela. Ez dakigu ongi zergatik, baina
gure eskualdean gripearen datuak Nafarroa osoan
baino baxuagoak dira. Estatu mailara begira jarrita,
Nafarroa izan da gripe tasa altuena izan duen lekua,
halere Basaburuko medikuak esan digunez, “beste
urteetako kutsatu kopuru antzekoa izan dugu”. Hori
bai, gogorarazi nahi izan dute prebentzioaren garrant-
ziaz eta horregatik populazioa animatu nahi dute

honako neurriak hartzera: Txertatzeaz gain, arnas-
ketaren sintomak dituzten pertsonen
kontaktua saihestu eta oinarritzko higiene neurriak har-
tzea (doministikua eta eztula egitean sudurra eta ahoa
eztali, eskuak maiz garbitu, eta abar). Kontaktua sai-
hstea ezinezkoa denean, infekzioa duen pertsonak
eta haien ingurukoek maskara erabiltzeak kutsatze-
ko arriskua gutxitzen du. Arnas infekziozko sintomak
dituztenek osasun etxe eta egoitzetara joatea saihe-
stu behar dute.



Irudi batean

Iritzia

Infiltratuak



Anjel Lertxundi
BERRIA egunkarian

Danboreneak esan
zuenean potrota-
raino daudela al-
derdiko ustelekin eta Ra-
joyk erantzun zionean ez
zuela esango bera norai-
no dagoen, ez zuten esan
urteak eman dituztela
batzuek potrotan jartzen
zaiena egiten, besteek
hildakoak baino mutua-
go. Edo fifty-fifty, nork
daki. Eskatologiaren hiz-
tegi guztia ere eskas da

praktikatu dutena deskri-
batzeko.

Chestertonen «Ostegun
izan zen nobela» nobe-
lan isileko polizia talde
batekoek ez dakite beren
arteko nor den infiltratu
eta nor legezko, nor fidel
eta nor traidore. Narrat-
hildakoak baino mutua-
go. Edo fifty-fifty, nork
daki. Eskatologiaren hiz-
tegi guztia ere eskas da

bat». Nobelaren azkenean
deskubritzen da denak
direla infiltratuak.
Roldanen lapurretak
deskubritu zirenean, po-
pularrek Chestertonen
nobela ekarri zuten gogo-
ra, sozialistek «lapur bat
poliziaburu» jarri izana
salatuz eta susmoa sozia-
lista guztiengana heda-
tuz. Orain hanka punt-
tetan dabilta, zaletasun
literarioak etxean utzita.

Duela 100 urte gurean egunkariak irakurtzen al ziren?

Badirudi hala dela, eta ez edozein egunkari, Madrildik zetozen egunkari “modernoak” ere. Tira, badakigu pertsona batek hala egiten zuela, edo irakurri ez dakigu, behinik behin erosi bai. XX. mende hasieran gurean, gehienbat, “El Pensamiento Navarro” egunkari karlista eta “Diario de Navarra” atera berria irakurtzen ziren, nola ez, baina...



Aurreko hilabetean egunkari zaharrei buruzko misterio bati buruz idatzi genizuen: Santurbeko baselizan ultzamako langile batzuek duela 100 urte baino gehiago beste langile “sozialista” batzuek ezkutatutako bi egunkari aurkitu zituzten. Ez baduzu gogoratzen hartu aurreko Pulunpe!



Erreportaje horren prestaketan hainbat datu eta bitxikeria aurkitu genituen hurrengo atal bat prestatu ahal izateko. Goiz batez, sorpresa handia hartu genuen testu zahar bat irakurtzean: Gaskue herrian 1885. urtean JMO izeneko pertsona bat “Las Dominicales del Libre Pensamiento” aldizkariaren harpideduna zen. Astekari hau Madrilen argitaratu zuten 1883. urtetik 1909. urtera arte. Argitalpen honen ildo ideologikoa antiklerikala, errepublikazalea eta masoia zen. Egunkari honek hamaika

arazo legalen ondoren “itxiarazi” zuten. Harridura sortzen du pentsatzea 1885. urteko Odietan halako pertsona bat bizitzea, iraganeko gure herrien “pentsamolde” tradizionalistarekin zerikusirik gabekoa...

Aurkikuntza txikia eta bitxia, beti bezala, hala sentitu nahi duenarentzat. Are bitxiagoa da datua ikusten badugu Iruñean 1892ko apirilaren lehenengo egunean “Los Acérrimos” elkarte sortu zela. Elkarte aitzindari honen xedea “pentsamendu askearen” doktrina lau haizeetara zabaltzea zen, beste guda zibil bat errepika ez zedin (III. Guda karlista, 1872-1876). Karlismoa gogor kritikatzeko zuten, “elizaren morroiak” zirela salatuz. (Originalean “el engendro de la clergalla”).



Udaletxeko artxiboetan begiratzen, Gaskuen bi pertsona aurkitu genituen JMO inizialak zituztenak: alde batetik Jose María Orayen dugu, 37 urteko nekazaria, ezkondua eta hiru seme-alabak zituen. Gizon “normal” bat bere garairako. Bestetik 16 urteko neskatxa bat dugu izen-abizenak JMO zituen. Lehenengoaren alboko etxean maizterrak

izanen ziren, ama alarguna baitzuten eta gainera anai-arreba guztiak nerabeak ziren. Etxe berean bi seme-alaba zituen bikote batekin bizi ziren. Hurrengo urteko erroldan ez da familia hau agertzen. Pentsa dezakegu maizterrak zirela, kontuan hartuta han-hemenka ibiltzen zirela askotan.

Inoiz ez dugu jakingo zein zen egunkari erradikal hura irakurtzen zuena, ezin baitugu haraino ikeritu. Polita da, hori bai, pentsatzea nekazari xume batek zergatik irakurtzen zuen halako egunkari “aurreratua” edota nola zen posible 15 bat urteko neskatxa maizter batek halako gauza bat egitea... Hipotesi anitz egiten ahal dira. Izan liteke Gaskue-
ra egunkaria ekartzea baina benetan beste batentzako izatea... Zein da zure hipotesia?



Interesgarria ere bada irudikatzea nolakoak ziren garai horietako egunkariak eta nolakoak zen giro politikoa. Badakigu, garai horietako hauteskundeetan datuak horrela diotelako, alderdi atzerakoiek irabazten zutela hemen beti. Industrializazio eskasak langileak hirietara eramaten zituen. Iruñea eta Nafarroa, orokorrean, atzerakoiak ziren. Publikoki ideologia errepublikazalea edo liberala adieraztea, ez pentsa oso ongi ikusia zegoenik. Ikus ditzagun adibide batzuk:

Apaiak anonimo batek honakoa idatzi zuen egunkari batean: “*Mil veces peores se pueden considerar a los liberales que a las huestes del Corán y la Media Luna*”. Ildo berean idazten zuen Tomás Azcárate Pardo apaizak honako olerkitxoan: “*¡Judíos, Masones y Soviets! / separatismo vil sin religión / que alfombra vais a ser de nuestros pies /cual polvo os barrera nuestra nación*”.

Bitxia da ikustea nola aldatzen diren zenbait identitate kontu: euskara eta euskaldun sentitzea, garai horietan politikoki “eskuinaren” barnean zegoen. “La Avalancha” deitutako egunkarian Hilario Olazarán integristak “Euzkadi” defendatzen zuen “fiel a Jaun Goikua y leal a Cristo” baitzen. Ildo berean honelakoak kritikatzeko zituen: “*El baile agarrao, la navaja, la pistola, la blasfemia, el trabajo en día festivo, el matrimonio civil, el entierro civil, la prensa impúdica, el teatro obscuro, la liber-*

tad de cultos, los clubs blasfemos, los meetings de golfos, todo ese inventario nos han traído del sur o del norte. Euzkadi no conocía antes tales bienandanzas; sus costumbres eran púdicas y santas”.

Garai horietan Nafarroan uste baino egunkari gehiago zegoen, ikus ditzagun batzuk: “El Eco de Navarra”, Julian Elizondoren zuzendaritzapean, “El Pensamiento Navarro” egunkari karlista, “La Tradición Navarra” ildo ideologiko integristakoa, Esteban Fraucak zuzendutako “El Demócrata Navarro” zegoen ere, ustez, ildo irekiagoa zuena. Azkenik “La Avalancha” astekari katolikoa genuen eta “El Porvenir Navarro” errepublikazalea. Bazeuden batzuk, eh?

Aurreko erreportajearen Basilio Lacort kazetariaren egunkariaren inguruan hitz egin genuen eta asko dago oraindik esateko. Angel García Sanz Historian Katedradunak egindako lan ikaragarriari esker argitaratu dugu erreportaje hau eta Lacorti buruz berak esaten zigun “iraultzaile profesionala” zela. Gizon horren bizitzak bakarrik beste erreportaje bat hartu lezake, edo liburu oso bat... Beste baterako beharko.

Ikusi dugu, gainetik bada ere, garai horietan egunkari asko zegoela, botere faktikoek baten bat ixten zutela, giro politikoa nahiko harrotuta zegoela, eliza politikan sartzen zela eta Odietan, behinik behin, “aske” pentsatzen zuen gizon edo emakume bat zegoela.

Tira, ez dira gauzak hainbeste aldatu, ezta?



Lacorten Mausoleoa Iruñean.

OHARRA: Gaztelera originalean utzi ditugu zenbait aipu interesgarri eta aberasgarri iruditu baitzaigu garaiko hizkuntza moldeen adierazgarri direla.



Santurben kartzelan sartu zuten

Kontu hau lehenik, Berueteko Sagastiko Antonio Otxotorenari aditu nion. Eta lehengo egun batean grabatu nion Barboneko Joxe Etxarriri. Eta hona hemen Santurbenen ibilerak Berueten, hitzez hitz, Joxek kontatzen duen bezala.



Garaikoa: Sortetxea ere handitu zuen eta abarte bat eman zion, aurreko alde guztia. Eta bazterretik ere bai beste bat.

“Nik aittu izandu’t eskeen baño geio, zerpatte saldu itten zuela. Hori Petritxoneko Balenttin zenak esan zee-ken. Ordun, hemen alkate zena, harro samarra eo panparron samarra men’yun, Garaiko nausi zena, ta fun-
damentu haundik gai edo, preso sartu ben’tzin hor, Herrikotxeko ganbaran, han izaten yun kartzela ta gizon
horrek gerriko paxa zintzeleka goien lotu ta arrastan eo, han etorri ta, goitik bera saltatu eta alde in omen zin”.
Santurbenek Berueten utzi zuen santua. Eta diru poltsa ere bai, jakina.

Noizkoa da kontu hau? Nor zen Alkate hau?

Fermin Arangoa Saldias, Berueteko *Ga-raikoko* nagusia zen, bertan jaioa 1860. ur-
tean. Ezkondu Arrarasko *Kasteneko* Joaqui-
na Luisa Erbiti Azpirotzekin ezkondu zen, 1888an,
hogeita zortzi urte zituenean. Zortzi seme-alaba
izan zituzten.
1891ko uztailaren lehenean Basaburuan alkate
aukeratu zuten bi urtetarako eta hurrengo txandan
ere beste bi urtetarako, denetara segidan lau urte
egin zuelarik.
Alkate egon zen denboran, eta ez oztopo gutxi-
rekin, Basaburuko udaletxea eraiki zuten. Udale-
txeko aurrealdean hala jartzen du: *Construida el
año 1894*.
Dena dela, oso gazte zela hil zen, 1903ko azaroa-

ren 9an, meningitis gaitzarekin. Alaba zaharrenak,
Pilarrek, 11 urte besterik ez zituen.
Nagusia ren faltan, Garaikoa zen etxalde ederra
errekara joan zen. Zorpean sartu, korrituak ezin
ordaindu eta Juzgaduak saltzera atera zuen.
1930. urterako behintzat, alarguna eta Tomasa,
bere alaba gazteena, *Mittoneko* maistarretxean
bizi ziren; seinale etxetik boteak zituztela.
Esan dugu etxalde ederra zela, honenak baitziren
bi borda hauek ere:
Intsalasko borda, orain *Mitxetonekoa* dena. Eta
Elizaldekoen *Ibarrateko* borda eta bere bazter
guztia.
Aipatu dugun bezala, etxalde bikaina, Berueteko
handienetakoa dudarik gabe.

OHARRA:
SANTURBENGO ERMITARIARI, ESKEAN IBILTZEN ZENARI, SANTURBEN DEITZEN ZIOTEN.
ZENBAITEK SANTULEROA ERE BAI.



JITOAK 1975

Astez zen, orain 40 urte edo, afaldu eta askotan ohi bezala, tertuliara joan nintzen herriko ostatura. Hotz galanta zen neguko gau hartan. Sartu eta ezkaratzean, mostradorean, zegoen *jito* Josetxo ezaguna zerbait hartzen. Besteok, bost-sei lagun, sukalde-
ra sartu eta han kokatu ginen mahaiaren bueltan,
“ekonomika” k epeldutako giro goxo hartan. Ni tarte hartan gazteenetakoa nintzen eta ez nuen oraindik
jito Josetxo ezagutzen. Besteek bai, arrunt ezaguna
zuten eta honen balentriak eta kontatzen hasi ziren.

Jitoa sumatu bai, sumatzen genuen, taberna-
riak maiztxo egin baitzituen joan-etorriak sukaldetik
ezkaratzeko mostradorera jitoa zerbitzatzera. Halako
batean, musika entzuten hasi ginen, ozen. Arin-ari-
nak eta porrusaldak, kriskitinez eta eskuko behatzen
soinuz lagundurik, dantzatzeko, hala hasi zitzaigun
jitoa. Dantzan ezkaratzean eta gero sukaldeko atea
ireki ondoren, sukalde barnean baina ezkaratza era-
bat utzi gabe, sartu-atera amaigabea, eta musika,
ozen; Josetxo, izerdi patsetan. Orain jota, orain jito-
dantza, denetik dantzatzeko bazekiela erakutsi zigun,
nik ezik, beste guztiek ezaguna zuten eran.

Ezkaratza hotz baldin bazen sukaldea ere ez zen
epeldu beti irekirik egon zen atetik sartzen zen hai-
zearekin. Jitoa zen berotu, bai, alkoholak eta dantzak
suturik, goitik behera bustia ikusten zelarik. Guk ere
eskertu genuen jito “euskaldun” hura, ikuskizun be-
roa eskaini baitzigun; hoztu egin ginela, hori izan zen
gau hartako oker ttikia.

HIZTEGIA
KOKATU: *olokatu*
EZKARATZ: *Entrada, paso*
OZEN: *SONORO*
AMAIGABE: *GELDITU GABE*

Jitoak Etxalekun

Astez zen, orain 40 urte edo, afaldu eta askotan ohi bezala, tertuliara joan nintzen herriko ostatura. Hotz galanta zen neguko gau hartan. Sartu eta ezkaratzean, mostradorean, zegoen jito Josetxo ezaguna zerbait hartzen. Besteok, bost-sei lagun, sukalde-
ra sartu eta han kokatu ginen mahaiaren bueltan,
“ekonomika” k epeldutako giro goxo hartan. Ni tarte hartan gazteenetakoa nintzen eta ez nuen oraindik jito Josetxo ezagutzen. Besteek bai, arrunt ezaguna zuten eta honen balentriak eta kontatzen hasi ziren.

Jito Josetxo Erro aldean hil zen bizikletatik erorita. Inon zerurik bada, Josetxo, lapurreta batzuk gora-
behera, han ibiliko da atarian dantzan sartu-atera,
sartu-atera, bertako giroa epeltzen.
Gorputza erabat hoztu zitzaidan gau hartan.

JITOAK 2005

2005ean gertatua, etxera etorri eta idatzi nuen. Eta gaur dakart hona besterik gabe.

“Karidadeko benta” bertso ikuskizuna etorri beha-rra dela Etxalekuko Ostatura. Jon Maia bertsolaria da ikuskizun horretako buru. 2005eko urriaren 15a, arratsaldeko 6ak eta erdietan dago iragarria. Bas-aburua eta Imozko herrietan jarri dituzten txarteletan hala da agertzen. Karidadeko Bentan aritzen den bertsolaria entzutera joan gara. Gehienok, zer ikuski-zun eta zer kantu mota kantatzen duen talde honek, jakin gabe. Euskal kantua dela bai, hori bagenekien.

Seiak eta erdiak badira, baina oraindik jende gu-txi ageri da. Zazpiak aldera ostatuko jantokia mukuru bete da Jon Maia entzuteko. Ekitaldia hastear dago. Antolatzaileak hasi dira hizketan: Barka ezazue baina Jon Maiak ezin etorria gaztigatu digu, ordu honetan Gasteizen ari beharra delako, eta bere orde, Ja-rauta karrikatik zuzen-zuzenean, flamenko talde bat ekarri dugu.

Oraingoan, arima hoztu zait.

Ikuskizuna dohainik zen, larunbata arratsaldea eta inora gabe gelditu ginenak gu izan ginen. Eta jito haiek ez ziren jito Josetxoren alabak. Bertsoak ateratzeko modukoa duk hau, Maia!

IKUSKIZUN: *espectáculo*
IRAGARRI: *Anunciar*
MUKURU: *a tope*
HASTEAR: *hasteko puntuan*
ANTOLATU: *organizar*



ARANTXA IZURDIAGA, NAFARROAKO PARLAMENTARIA ETA ANOTZIBARKO BIZTANLEA

“Herri presioaren **beharra** dugu”

Anotzibarko alkate izana, eta Odietako zinegotzi. Azken legealdian parlamenturako jauzia eman du EH Bildu alderdiaren eskutik, eta akordio programatikoaren negoziatioetan parte hartu zuen. Abokatu izanda, parlamentuko eztabaida eza kezkarria iruditzen zaio.

Nola ikusi duzu parlamentua?

Sorpresa da. Klean ez dugu oso ongi ezagutzen parlamentuko lana. Alde positiboak eta negatiboak izan ditu. Ikusten ez den lan izugarria egiten dugu, osoko bilkurez aparte. Eragileekin biltzen gara, eztabaidatzen dugu, Nafarroako errealitatea eza-gutu... Baina alde negatiboa izan da ikustea ez da-goela eztabaidarik parlamentuan, bakoitzak berea esaten du eta listo.

Aldaketa klean nabaritu dela uste duzu?

Denbora gutxi pasa da, eta zaila da aldaketa sako-nak egitea, eta are zailagoa klean nabaritzea. Bai-na, erreforma fiskala, aurrekontuen aldaketa... egin da. Akordio programatikoa guztiz aplikatzen badu-gu, oso aldaketa sakona izango da.

Manifestazioetara joaten direnen artean aldaketa egon da behintzat...

Bai, ezinezkoa da denak kontent mantentzea. Le-hen klean zeudenak orain ez daude, eta lehen ez zeudenak daude orain. Horrek gobernuaren aldake-tarako tendentzia erakusten du. Askok ez dituzte ulertzen edo ulertu nahi izaten gobernuaren eraba-kiak.

EH Bilduren egoera nola ikusten duzu?

Barne prozesu bat egin behar dugu azken hautes-kundeak eta hurrengoak aztertzeko. Hala ere, edu-

kietan oso argi dugu, ideologikoki talde indartsua gara, baina komunikatiboki berritu beharra dugu. Podemosek, adibidez jakin izan du hori egiten.

Sortuko kidea zara, nola ikusten duzu ezker abertzalearen egoera?

Estrategia aldatetatik aurrera, zutabe nagusia alde-bakartasuna zen. Baina hasieratik aldebikotasuna bilatzen aritu gara, indar asko galdu dugu, eta ez dugu eragiten jakin. Zentzu batean, tranpa egin dio-gu gure buruari, estatua negoziatzera bultzatuz, bai-na ezinezkoa da, eta frustrazio bat etorri da. Marko demokratiko bat sortzeko unea zen, baina estatua ez da mugitu, ez baitago mugitzera behartuta.

Herri mugimenduaren egoera nola ikusten duzu, ahulduta?

Maiatzeko hauteskunde emaitza onen ondoren herri mugimendua ahuldu da. Akatsa da hori, erlaxazio bat gertatu da gobernuak zer egingo zain. Guk, alde batetik, ezin dugu herri mugimenduaren lana egin, gobernu lanak itotzen gaituelako; eta, bestetik, herri presioaren beharra dugu, protestak egitea, manifestazioak... gero guk aldarrikapen horiek gauzatu ahal izateko.

Zeinek dauka benetako boterea Nafarroan?

Galdera ona eta zaila. Gobernuak ez du botere guztia. Volkswagen, La Caixa, OPUS eta abar, hau erregimen bat da. Beste ekonomia eredu bat sortu behar dugu, aski da multinazio-nalak izateaz. Arlo pribatuan diru publikoa sartu behar bada sartuko dugu, baina lana prekarizatzeko eta gutxi batzuk aber-rasteko erabiltzen bada, eta hala izan da askotan, etengo dugu, gertuko ekonomia sustatu behar dugula uste dut.

Parlamentuan zaude orain, baina Anotzibarren eta Odietan ere egon zinen zinegotzi, nola ikusten duzu orain?

Herritarrekin lan egiten ikasi behar dugu, leku guztietan. Parlamentua, udaletxeak... ireki behar ditugu, eta horretarako tresnak sortu behar ditugu. Parte hartzeko auke-ra eman behar da, benetako erabakiak denon artean hartzeko, ez ordezkari po-litikoek soilik.

Bide osoa egin du **Pakik**

Paki Urritza Satrustegi, Beramendiko Bengoetxeko etxekoandrea dugu. Pello Dorai du senarra eta bi seme-alaben aita-amak dira: Olatz, 20 urtekoa eta Beñat, 18koa. Biak estudioan ari dira. Urritzako Mugertza etxean jaioa eta erdaraz hazia. Bere denboran Urritzan euskara gainbehera zetorren, eta aspalditik gainera. Gurasoak euskaldunak, baina euskara arrotzu xamarra; ez baitziren aritzen ia inoiz. Eta Pakik euskara eta euskal mundurako bidea egin du, eta bide osoa. Orain euskaldun osoa dugu, hizketan ezeze, irakurtzen eta idazten ere ikasi baitu.

Paki, zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Pellorekin hasi nintzen. Hau euskalduna zen eta bere lagun eta adiskide asko ere bai. Horrela, pentsatu nuen ikasi beharko nukeela. Hogeita bat urtetan hasi nintzen Irurtzunen. Urte bat egin nuen. Gero, ezkondu eta hona etorri nintzenean, Basaburuko gaueskolan segitu nuen ikasten. Iruñean ere ibili nintzen, ikasketa prozesua azkar-tzeko: Arturo Kanpionen eta Diputazioko eskolan. Leitzan, berriz, ikastaro trinko bat egin nuen.

Beramendin beharrezkoa al zen?

Beramendin ez, baina Bengoetxean bai. Amaginarrebak eta aitaginarrebak euskaldunak ziren. Kata-linak erdaraz ere ederki zekien baina Patxikok ez, oso gutxi zekien.

Ikasteko erraztasuna edo ikasteko nahia handia.

Ja, ja, ja, nahia behintzat bai. Gero nahiz euskaraz batere jakin ez, pronuntziazioa, hitz batzuk, esaldi-ren batzuk banekizkien. Horrek ere laguntzen du.

Edozein hizkuntza dela ere, akademian erakusten denetik karrikan erabiltzen denera tartea izaten da. Saltoa nola egiten da?

Ni postari ibiltzen nintzen tarteka. Eta lana apro-betxatuz, herri hauetako jendeekin euskaraz hitz egiten ahalegintzen nintzen. Eta horrela lotzen da gaueskolan ikasitakoa eta karrikako euskara. Be-larria erne, eta laster hasten zara dena ulertzen; hizketan ere bai.

Paki, ez dago esan beharrik, ederki moldatzen zara batuan eta hemengo hizkeran ere bai. Eta zure lan hori eskertzen zuten Bengoetxeko aitatzik eta amatxik?

Izugarri, izugarri, batez ere aitatzik.

Senargaiarekin erdaraz hasi zinen. Eta erdaraz segitu zenuen, jakina, ikasketetan aurrera egin artio. Erdaratik euskarara, nola egiten da salto hori?

Hori ez da erraza izaten, baina nahi izanez geroz, pixkanaka, pixkanaka... Berak bere aldetik jarri be-har du eta nik ere bai. Oraindik ere, batzuetan er-daraz aritzen gara. Hori bai, umeeekin, esan liteke,

beti-beti euskaraz aritzen naizela.

Euskaraz ikasi, irakurtzen ikasi, idazten ikasi. Zer eman dizu euskaraz ikasteak?

Eman? Beste mundu bat eman dit! Beste mundu bat! Hori aberastasun handia da.

Beste zerbaít berezirik?

Bai, bertsotarako zaletasun handia dugu eta alder-di honetako jaialdi askotara joaten gara. Gustura pasatzen dugu.

Euskararen inguruan beste gauza frankoz hitz egin dugu, baina honetan moztu beharko dugu, Paki, tokirik ez dugu.

HITZAK
AMAGINARREBA,
AMIAARREBA: *suegra*
ATAGINARREBA,
ATTIARREBA: *sue-gro*.



Ohiturak eboluzioa behar du?

Hori da Lanzko sexu erasoak mahai gaineratu duen galdera. Zalaparta ugari izan zuen komunikabideetan Euskal Telebistako kameralari bati ihoteko kalejiran egindako erasoak. Esan genezake inflexio puntu bat markatu duela Lanzko ihotean, baina komunikabideen bat-batekotasunetik eta momentuko morbo mediatikotik harago, gaia ez da mahaitik kendu.



Isabel Elizalde Lanzko alkate berriak esan bezala, gertaera honek zauri bat ireki du herrian, oraindik itxi ez dena. Aurtengo ihotea markatu du, eta datozenak ere seguruenik. Hala ere, nahiz eta gertaera tamalgarri eta negatiboa izan, zentzu positiboan erabili nahi dute, etorkizunean halakorik gerta ez dadin, eta jarreraren inguruko hausnarketa kolektibo bat emateko.

Bi alde ditu gai honek, biak ala biak ihoterako eta herriarendako kaltegarriak: ohitura honetatik komunikabide eta kanpoko jende askok sortu nahi duen espektakulua alde batetik, eta ohitura honek gordetzen dituen jarrera matxistak bestetik.

1. LANZKO IHOTEAREN ESPEKTAKULARIZAZIOA: Jimeno Juriok Lanzko ihotearen inguruan idatzi zuenetik jende ugari joan da urtero kalejira ikusi nahian. Nafarrak, beste euskal probintzietakoak, frantsesak, eta baita japoniarrak ere dira ikustera datozenak, bakoitza argazki edo bideo kamera bana eskuetan (gutxienez).

Argazkirik onena atera nahia, kalejiraren barnetik atera nahia... ikuskizunen izaera eta ikusleen jarrera ere asko aldatu da azkenaldian, eta Lanzko biztanleak gladiadore edo zirkuko pailazo ere sentitzeraino eraman ditzake.

2. OHITURAREN AITZAKIAPEAN, JARRERA MATXISTAK:

Zortzikoa hasi baino lehenagoko gosarira joatea besterik ez dago honetaz konturatzeko. Emakumeak sukaldean eta gizonak mahai inguruan. Zortzikoa ere, asteartea kenduta gizonen espazioa izaten da. Badira esaten dutenak ere astearteko zortziko mistoa ez dela benetan hala, gizonen gidaritzapean baitago.

Bestalde, ihotea beti izan da normaltasunarekin hausteko garai bat. Mozorroa jantzi eta norberaren izaera ezkutatu egiten da. Hau dena, alkoholarekin lotuta (edo ez, askotan berdin du) edozer egiteko askatasuna hartzen dute moztortuek. Baita erasoak egiteko askatasuna ere, tartean gizonak jasoko ez luketen erasoak egitekoa, hau da, eraso matxistak.

Neurria bilatu beharra

Ohitura mantenduz, ahalik eta errespetuzkoena izatea bilatzea da erronka, bisitariak errespetatu eta haiek ere herritarrak eta ohiturari errespetua erakutsiz. Aldaketak egin beharko dira nahitaez. Zalantza handiena da ohitura aldatuta ohitura izaten jarraitzen duen, eta ohitura bere horretan mantendu behar den beti, lehengo garaietako baloreak mantenduz, edo eboluzioa behar duen.

Satoshi Tsukitaku, antropologian aditua

Japoniar honek kultura desberdinak ezagutzea maite du. Lanzko ihoteen inguruan internet eta liburuen bidez irakurri zuen eta erabaki zuen hona etortzea. Normalean munduko alde horretako turisten irudiaz urrun dago Satoshi, esperientzia nola bizitzen den interes handia baitu. Paristik pasa ondoren, Euskal Herrira, Bilbora ailegatu zen. Iruñetik Lantza taxian joan zen ihoteetako asteartea bizitzeko. Estilo japoniarrezko gaztelania bitxian erantzun digu Satoshik.



Zer iruditu zaizu ihotea?

Egonaldi laburregia da lur honetako ihoteari buruzko iritzirik emateko. Baina, Julio Caro Barojaren idazlanaren zenbait artikulu irakurri ditut Nafarroako ihotearen inguruan. Oso fenomeno folkloriko interesgarri eta garrantzitsua da munduan. Oso denbora tarte txikia eman dut Lantzen; beraz, ezin iritziri berezirik eman, Julio Caro Barojaren lanaz eta bere anaiak Youtuben grabatu zuen dokumental zinematografikoaz aparte.

Hala ere, bisita honetako alderdirik garrantzitsuenak izan da giroa sentitzea, bertakoek festan agertzen dituzten adierazpenak ikustea. Zentzu horretan, pozaz hartu dut bertakoek egin didaten harrera eta gero dantzatzeko gonbitea. Baroja maisuak bere obran dio europar errituak aztertzean hemengoan beste inon aurkitzen ez den ikerketat-ildo bat aurkitzen dugula, eskuragarriagoa eta errazagoa, barrenetik bizitzeko aukera ematen baitu.

Horregatik, nire egonaldi laburra eta bertakoekin izan dudana harremana esperientzia atzendentzina eta hunkigarria izan dira.

Jende gehiegi zegoela iruditu zitzaizun, masifikatuta dagoela?

Ez dago modurik folklore adierazpenen inguruan gertatzen diren aldaketak geldiarazteko, eta ez dugu saiatu behar loturik mantentzen. Japonian ere baditugu halako arazoak.

Folklore adierazpenetan gertatzen diren aldaketez ari garela, Japonian beti izan da modernitatearen eta tradizioaren arteko talka moduko bat, ezta?

Garai honetako talkarik handiena Meijiren berre-

zarpen (1868~) delakoa izan da. Arte tradizional eta ohitura franko galdu ziren garai nahasi horretan. Horretaz aparte, ia ezezaguna den fenomeno bat da probintzietako muturreko despopulazioak komunitate tradizionalen desegitea eragin duela, hau da, ezin zuten bere kultura tradizionala mantendu. Aldaketa hau 1960.eko hamarkadan gertatu zen, ekonomiaren gorakada azkarrak industria-guneetan langile ugari behar zuenean.

Ba al dago Japonian honen antzeko tradizioen bat?

Alde batzuetatik begiratuta, bai. Japoniako besta batzuetan pertsonaia harrigarri edo barregarriak agertzen dira. Baina, ez dut ezagutzen Miel-Otxin bezalako pertsonaia hiltzen duten bestarik. Nitako ere gai arraroa da.

Emakumeek Japoniako tradizioetan duten papera aldatzen ari da? Pentsatzekoa da gizartean ere aldatuz joanen dela...

Nohgaku delakoa dago (Muromachi garaitik existitzen den antzerki tradizionala da, arte horretako musikari profesionala naiz), azken honetan emakumezko interprete profesionalak ugaltzen ari dira, baina oraindik ez dute aukera berdintasunik. Japoniako dantza modernoan, Nihon-buyou (genero desberdina erdi-aroko artearekin alderatuta) delakoa, ikusten dugu zale eta profesional gehienak emakumezkoak direla, eta berdin lore-artean tearen zeremonian, eta abar.

Ehun urte barru, Nohgaku dantzaren emakume profesionalen portzentajea orain baino askoz ere gehiago haziko da (orain zaleen artean emakume gehiago dago gizonak baino).

Kontziliazioa, eskubideak eta soldatak

Urtero ospatzen da martxoaren 8a mundu osoan. Urtero egunkari eta aldizkarien orriak betetzen dira berdintasunari buru hitz egiten. Argi dugu garrantzia duten gaiek ezin direla egun bakarrean tratatu, egun guztietan egin behar. Oraingo honetan kontziliazioaren inguruan zenbait ideia ekartzen dizugu.



NEREA RIPA, BASABURUKO UDALEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Udal administrari laguntzailea da Nerea aspaldi. Amatasun baja bukatu eta urtearekin batera lanera itzuli da. Aldaketak izan dira Udalean Nereak baja hartu zuenetik eta lanera buelta, berritasun, nobedade hori eskertu du. Kontziliazio plan bat egiten ari da Nerea: Julen txikiak urtea betetzen duen arte, goizeko bederatziak aldera sartzen da lanera: "Horrela bi txikiekin batera esnatu eta elkarrekin gosaltzen dugu eta eskolara eramaten ahal ditut".

KASU PRAKTIKO BAT, JAUNTSARASKO APEZTEGIBERRI:

Ernaizu kooperatibaren helburuetako bat kontziliazioa ahalbideratzen duten lanpostuak sortzea da. Haien lanaldiak murrizak eta malguak dira norberaren beharretara egokitzeko asmoz.

"Hilabetearen bukaeran lan egindakoaren arabera kobratzen dugu eta egutegia hilabetez hilabete berregiten dugu guztion eskakizunak kontuan izanda. Momentuko beharren bat ere sortzen bada aldaketak egiten ditugu". Sistema hau aurrera eramanez ahal izateko lan ikuskaritzatik hainbat eskakizun egin dizkiete eta aipagarria da lehenbiziko bi urteetan hiru aldiz etorri zaizkiela ikuskaritzatik dena ongi zegoela baieztatzeko. "Ez da erreza izan, administrazioak ez du sobera lagundu alde horretatik eta gainera berez zailagoa da txanda eta lanaren antolaketa. Halere, merezi duela uste dugu eta oso positibotzat jotzen dugu gure esperientzia".

ZAILTASUNAK ADIBIDEAK AURKITZEKO

Artikulu hau prestatzeko uste genuen baino zailtasun handiagoak izan ditugu. Administrazio publikoan bagenekien zenbait kontziliazio adibide genituela baina enpresa pribatuaren galdetuta, ez

dugu, momentuz erantzunik jaso. Ultzamako esneki enpresa handi bati kontziliazio plana eskatu diogu birritan, momentuz erantzunik gabe. Bailara horretako haur eskola bateko gurasoei mezu bidez kontziliazio adibideak eskatu dizkiegu erantzunik gabe. Azkenik, sare sozialen bidez ere galdetu dugu emaitzarik gabe. Zergatik ote?



UMERIK EZ DUTEN LANGILEEN BIZITZAN KONTZILIAZIOA GARRANTZITSUA DA ERE

Eskubideak aldarrikatzen ari garenez, pentsa dezagun beste egoera batzuetan ere. Gizartean, gutxika bada ere, kontziliazioa emakume eta gizonen kontua den ideia zabaltzen ari da. Hala ere, ideia hori beste modu irekiagoan zabaltzen badugu, lana, askatasuna eta aisiaren arteko erlazioan sartzen gara: kontziliazioa ez al litzateke bizitzaren eremu guztietara zabaltzeko behar? Pertsona bezala "zoriontsuago" izatea ez al da askoz hobe gizartearendako, familiarendako eta enpresarendako?

Umerik ez duten pertsonen, familia edo lagun bat zaindu nahi dutenek, aktibismoan edo militantzian lagundu nahi dutenek, Artean murgildu nahi direnek, bidaia luzeak egin nahi dutenek... Ez al dute eskubiderik haien lanpostuetan ordutegi malguasuna izaten, eszedentziak lortzen...



DATUA:

2008an krisi ekonomikoa hasi zenetik, handitu egin da gizonen eta emakumeen arteko soldaten aldea. Nafarroan, emakumeek gizonen baino %27,9 gutxiago irabazten zuten 2008an eta %30,5 gutxiago bost urte geroago.

RIKARDO IGOA, "ASPI" ETA EGOITZ KUELI, KARIKOLAR ELEKTRIZITATE ENPRESAKOAK

"Garrantzitsua zen eskualdean lanean jarraitzea"

Hala esan digu Aspi lizasoarrak, irrifarrea ahoan duela, jubilatuta berria baitago. 2016. urtearen hasiera berezia izan da: Egoitz erriparrak hartu du Aspi hasitako lana. Eskualdean etxe, ukuilu eta kaleetan lanean egon ondoren, garai berri bat hasi da Karrikolar enpresan: lehengo lanak mantendu eta denbora berriekin datozenak sartu.

Ateratzen al da lana urte sasoi honetan?

EGOITZ: Badakizu urte hasierak motelak izan ohi direla, baina gure kasuan mantentzen gara. Alde batetik Aspi hasi zuen lana jarraitu egiten dut nik, jendeak badaki lanean ari garela eta deitzen jarraitzen dute.

ASPI: Enpresa txikia sortu nuen, lanpostu bakarrekoa. Duela hamar urte elkarlanean hasi ginen, baina azken krisi ekonomikoa ailegatu zenean lan karga jaitsi zen eta nolabait ahal izan dugun moduan jarraitu dugu. Egoitzek opor edo karga handia zegoenean laguntzen ninduen. Laguntza handia eman dit Egoitzek urte hauetan, lan honek askotan behar du bi pertsona egotea.

E- Alturan lanean ari zara, ez dakit non, bakarrik... Arriskutsua da lana batzuetan, eta badaezpada norbait hor egotea oso garrantzitsua da.

A-Garrantzitsua zen eskualdean lanean jarraitzea, ez baitago elektrizitatearekin lan egiten duen ia bete inor, Auzako Jose Antonio eta gu. Halako zerbitzu bat mantendu behar zen.

Eskualdean, handiak mantentze beharko...

A- Urte batez ere egin dut baitago mantentze kaleko arloz

gainera, etxe oso daude, lan handiak

hauetan, ukuiluetan lan, lan asko eta herrietan lanak egitea, giak. Gehien nauena Egoitz

lan honekin jarraitzea da, aipatu bezala mantentzen delako zerbitzua eta bestetik ere enpresaren izena mantendu duelako. Hasi nintzenean Lizason etxea dudaren lekua izen jarri nahi nion: Mendi-bel, baina bazegoen ukuilu bat izen horrekin, kasualitatez, ukuilu hori kokatua zegoen lekua oso polita zen eta toponimian begiratu eta Karrikolar agertu zen. Herrian galdezka erran zidaten Garrikolar hitzaren eboluzioa dela... Gustatu eta izen hura hautatu nuen.

Etorkizunera begira, lanak zein erronka ditu?

E- Garaiak aldatzen diren heinean gu ere moldatzen gara. Orain arte egiten genituen lanez gain, beste lan mota berriak egiten hasi gara. Zerbait aipatzearren, Domotika instalazioak (etxe barruko aparatuak teknologia bidez kontrolatzea); epe ertainera begira hazkunde interesgarria izan dezakeen sektorea da. Bestetik, etxetresna elektrikoak saltzen ere hasi gara; jendeari zerbitzu interesgarria ematen diozu aparatu hauek katalogo bidez eskaintzean. Eta bestetik, telekomunikazio instalakuntzak; internet eta teknologia berriekin loturiko lanak. Bukatzeko, beste sektore batean ere sartu gara: argindarraren merkatua "ireki" da eta guk ere saldu ahal ditugu argi-kontratuak. Bide berri asko zabaltzen ari dira.

A- Hori bai, argindarra, momentuz, oraindik kable bidez ailegatzen da, eh?



“Lurraren seme-alabak” (Hijos de la Tierra)



Axel O’Mill eta Patxi Uriz nafarra dira dokumental labur honen egileak. Hala ere, guretako ezagunago izango den Sandra Iraizotz ultza-marrak parte hartu du ekoizpen taldean.

Gainera, ilusio handia zuen jarrita dokumental honetan Sandra Iraizotzek, eta bere fruitua eman dio jarritako indar eta ilusioak, Goya saria. Hijos de la Tierra filmak eraman zuen film labur dokumentalen Goya saria joan zen hilabeteen izandako sari banaketa ospakizunean.

Dokumentalak herrialde eta kultura ezberdinetako gizon-emakumeak azaltzen ditu, medikuntza tradizionala eta gizarte horien jakinduria gaiaren

ardatz izanik. Botika-enpresa handien negozioaren gainera lurrarekin eta pertsonen lotutako medikuntza jarri nahi izan du agerian.

Xamanak, druidak eta beste dira obrako protagonistak; hain zuzen ere, gaixotasunen kontra egiteko ama lurraren lehengaiak baliatzen dituztenak. “Askatasun ohi bat, sustraietara buelta” da obra, Uriz zuzendariaren hitzetan.

Golem zinemetan egon zen ikusgai otsaileko egun batean, eta salgai dago orain hamar euroan internet bidez. Ametza.eus webgunean ikusgai duzue dokumentalaren trailerra.

“Dominique”



Luzaiden jaio zen Dominique, XIX. mendearen amaieran. Muga administratiboa alde batera eta lbañetako mendateak marraztutako muga naturala bestera. Ez frantsesa ez espainiarra, eta aldi berean, erdi frantsesa eta erdi espainola, hori litzateke Luzaideko euskaldunaren definizioa.

Txaro Begué, Dominique liburuaren egilea, izen bereko emakumearen birbiloba da. Bere arbasoaren historia erabili du fikziozko nobela bat idazteko. Luzaideko ingurua eta garaiko egoera deskribatzen ditu lanak, Dominique emakumea ardatz izanik, zulo baztertu hartan bizi zen emakume mu-


gitua, hobetzeko erronka eguneroko lan bihurtzen zuena.

Bi emakume protagonisten arteko elkarriketa du ardatz liburuak, fikziozko elkarriketa, inoiz elkar ezagutu ez duten Dominique protagonista eta Txaro idazlearena. Bi emakumeren bizipenak, sentimenduak, emozioak, nahiz eta garai ezberdinetan izan, oso antzekoak direnak.

Idazleak berak dio aldatzen den bakarra momentuko egoera dela, baina sakonean garai hartako zein honetako emakumeen sentimenduak, emozioak eta grina antzekoak direla.

Martxoaren 8ko emakumeen egunaren harira antolatutako ekitaldien baitan, Txaro Begué idazlea Larraintzarren egon zen hilaren 4. egunean, bertako irakurle taldearekin esperientziak konpartitzen. Lehenago irakurria zuten irakurle taldeko ki-deek, eta egiten duten gomendioa erabatekoa da, irakurri beharrekoa.

Gertu eskiatu, Saioan



Ez dago zertan Aragoira joan eskiatu ahal izateko. Ez dago zertan bi ordu kotxean eman eta 50 euro “forfaitean” gastatu. Gugandik oso gertu, Saioan, eskiaren paradisuetoako bat daukagu.

Asko dira gurean lehenengo elurak botatzeko zain egoten direnak etxetik eskiak hartu eta 10/15 minuten buruan eskiatzen hasiteko, edo etxetik bertatik hasi ere.

1.418 metro ditu Saioak, inguruko mendirik altuenetakoa. Bere gailur burusoilak haize bolada gogorak sarrarazten ditu, baina eskirako aukera ederrak ere bai. Ez dago noski, Aragoiko eski estazioetan dagoen erosotasunik, hotel eta teleaulkirik. Baina bai baso eder eta igoera eramangarria, eta, nola ez, jaitsieraz gozatzeko aparta da Saioa.

Batzuk Artesiagako mendatean hasten dira eskiatzen, baina beste asko Belatekoan zein Lantzen. Bideak antzekoak dira, nahiz eta Lantzoa luzeagoa den. Eskia ez da aukera bakarra, izan ere, erraketak azkenaldian geroz eta gehiago erabiltzen ari dira irteerak egiteko.

Ordu eta erdi inguruko igoera dago Belatetik Saioako gaineraino, eta ondoren ordu erdian egiten da jaitsiera. Paisaia, zoragarria. Ibilbide labur horretaz gain, ordu eta kilometro gehiago ere egin daitezke, basoan murgilduz.

Bertan gailurreko eremu “burusoilean” baino elur gehiago pilatzen da, ez baitago haizerik, eta gainera elurra ez dagoenean ere ibili daiteke basotik.

Iraupen eskian hasten ari den jendearentzat, beraz, ezin hobea da Saioako ingurua. Leku zabala, malda arriskutsuegirik gabekoa eta elur-jauzi arriskurik gabekoa.

Beste arrisku batzuk baditu ordea, haizea alde batetik, eta bereziki lainoa. Aurten erreskate taldeek esku hartu behar izan dute behin baino gehiagotan, eta urtez urte murrizten ez diren gertaerak dira hauek.





2015eko **ILBELTZA**. Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

JAIOTZAK:

ULTZAMA

ARRAITZ

Paloma Muracciole Jimenez, Nicolas eta Maria Joseren alaba, 2016ko urtarrilaren 2an jaioa *Apezetxean*.

IRAIZOTZ

Talia Gastearena Egozkue, Javier eta Evaren alaba, 2016ko urtarrilaren 8an jaioa.

Unax Arraztoa Ezkurra, Iker eta Maiteren semea, 2016ko urtarrilaren 17an jaioa.

ONGI ETORRI JAIO BERRIEI ETA ZORIONAK BEREN GURASOEI!

HERIOTZAK

ANUE

OLAGUE

Manuel Etulain Azkarate, *Beitiko* ostatuko semea, 2016ko urtarrilaren 8an hil zen.

LEAZKUE

Isabel Lakidain Larraburu, *Galañeneko* etxe-koandrea, 2016ko urtarrilaren 11an hil zen.

IMOTZ

LATASA

Ramona Oreja Arantzadi, *Arotzeneko* etxeokandrea zaharra, 2016ko urtarrilaren 12an hil zen.

OSKOTZ

Eduardo Conde Bastero, *Dindeko* nagusi zaharra, 2016ko urtarrilaren 2an hil zen.

ULTZAMA


IRAIZOTZ

Enrique Etxandi Serrano, *Maizkorneko (Artxaia)* semea, 2016ko urtarrilaren 25ean hil zen.

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE



Ramona Oreja



Talia eta ama



Gurasoak eta Unax



Paloma eta familia



Manuel Etulain



Otsoa Euskal Herrian **kaixo** ala agur?

Gezurra dirudi orain arte animalia mitiko honi buruz atal honetan ez idatzi izanak. Mota guztietako animalia, landare eta istorioei buruz hitz egin dugu eta inoiz ez “canido” zahar honen inguruan. Tira, ailegatu da garaia, ba!



Ipuin, kondaira eta iraganeko beldurren protagonista dugu otsoa: Canis lupus. Ipuinetan Txanogorritxu, Pedro eta otsoa eta halako milaka istorioen protagonista, Romulo eta Remo Erromako aitzindarien “ama”... Nolabait, lehengo gizarte zaharrean oso barneratua zegoen otsoari beldur “azpikontzientea” hura. Gogoratzen dut behin kalean nengoela Zamorako agure bat elkarrizketatzen, beldurrei buruz galdezka nengoen eta berak otsoei zien beldur handiari buruz hitz egin zidan.

Duela aste batzuk hedabideetan ikusi ahal izan genuen Euskadiko azken lau otsoak hil zituztela. Hala zioen berriak: “Lau otso hil dituzte Karrantzan urtarrilaren 23 eta 24ko asteburuan Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ehizaldi bitan. Aurreko asteetan inguruko abereek jasandako erasoan ostean hartu du Aldundiak neurria”. Bizkaia aldean gertatu zen hilketa hori eta bazirudien euskal txanogorritxu eta Pedroak umezurtz geratu zirela, baina ez dirudi hain sinplea denik kontua.

Basaburuko basozainak kontatu digunez, Burgostik sartu-irten dabilta otsoak azkeneko urteetan. “Nolabait hedatzen ari dira, ekialdetik sartzen dira eta pixkanaka zabaltzen doaz”. Xabik aipatu digu azkeneko urteetan 50 bat ale ikusi zirela eta kumeak egin dituztela konfirmatu ere. Baliteke Euskadiko azken otsoak izatea, baina ez gaude ziur beste batzuk ailegatuko ote diren. Egoera konplexuago egiteko, aipatu behar da otsoak agertzen diren lekuetan abeltzainekin sortzen diren arazoak.

Gure eskualdea aspaldi otso aldea bazen ere, desagertu ziren. Aurkitu dugun aipamen bakarra Joseba Gartzaroni eskertu beharra diogu. Berak ai-

patu zigun Oskozko bando zahar batean dirua ematen zela otsoak akabatzeagatik. Memoriaz aipatu zigun kontua, momentuz dokumentua zehazki zer zioen eta zer data zuen ezin esan. Beste baterako beharko. Nafarroa mailan basozainak aipatu digu Urbanen akabatu zutela azkeneko otsoa duela 30 bat urte. Halere, aipatu digu noizean behin otsoren bat Nafarroatik pasatzen dela, “oso eremu zabala hartzen duten animaliak” baitira eta askotan har bat han-hemen dabilena, “dispertsioan”, pasa daiteke gure mendietatik. Eta orain pare bat bitxikeria aipatuko dizkizugu:

Pirinioetako mastina, otsoaren biktima

Biktima izan zen, bai, modu batean behinik behin. Txakur arraza zahar hau hartzak eta bereziki otsoak Euskal Herritik desagertzekoan galtzen hasi zen, artaldeak etsaierik gabe halako zakur puska mantentzea errentagarria ez zelako. Orduan, soilik artzain txakur txikiak geratu ziren artaldetan, euskal artzain txakurra arrazakoak bereziki.

Otsoak, ekosistemaren lagun

Orain arte idatzitako gehiena heriotzari eta ehizari buruz egin dugu eta beste ikuspuntu bat gehitu nahiko genioke. Oso dokumental interesgarria dago ikusgai interneten: “Como los lobos son capaces de cambiar el curso del río” jartzen baduzu *Youtube* ez zara damutuko! Amerikako Estatu Batuetako Yellowstone parkean aspaldi otsoak desagertuak zeuden. Animalia belarjaleak nagusi ziren eta horrek zuhaitz eta belarren desagertzea ekarri zuen eta horrekin lurren erosioa eta desertifikazioa. 14 otso sartu zituzten parkean eta denbora gutxi batean otsoek lortu zuten belarjale populazioa jaistea, ekosistema berreskuratzea, desertifikazioa etetea!

ZORIONAK ZUEI!



Alaitz



ESTHER



Ander



Bakartxo



ENTRA



FLOREN



MÄRKEL



JULEN



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835 Lizaso karikolaregoitz@gmail.com

¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS
A RECICLARSE? PONLE CABEZA
ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN
KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA
RECICLA TUS RAE* BIRZIKLATU ZURE TEEHak*



Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o
usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de
voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y
fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara,
edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina
handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune
mugikorak eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / *Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / www.mcp.es

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética



- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
- Biomasa galdarak, berogailuak
eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun
energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 tedesna@tedesna.com www.tedesna.com



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez



Senatel

Telecomunicaciones

848 410 500

Sta. Vicenta María 14 31012

IRUÑA

info@senatel.es



